

UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA

2021eko irailaren 16ko 16:00etan, modu hibridoan, hau da, bideokonferentziaz eta kide batzuk bertan direla, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzordea bildu da, eta honako kide hauek parte hartu dute:

Batzordeko kideak: Jasone Cenoz And., Henar Miguelez And., Salustiano Mato Jn., Diego Sánchez Jn., Manuel de León Jn., Eduardo García Jn., Alfonso Novales Jn., Magdalena Patricio Jn. eta Iñaki Heras Jn. Agentziako zuzendaria. Ezin etorria adierazi dute: Cristina Iturrioz And. eta Barbara Potthast And.

Gai- Zerrenda

1. Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea. (O)
Akta onartzen da.
2. Zuzendariaren txostena.
3. Unibasq-ekin elkarlanean arituko diren ebaluatzaileak hautatzeko protokoloa. (O)
Protokoloa onartzen da.
4. Irakasle eta Ikertzaileak Ebaluatzeko eta Akreditatzeko Protokoloa. (O)
Protokoloa onartzen da.
5. Euskal Unibertsitate Sistemak eskaintzen dituen unibertsitate-titulazio ofizialen bektoreen autoebaluaziorako eta kanpo-ebaluaziorako informazio-gida. (O)
Gida onartzen da.
6. Ebaluazio-batzordeetako kideen kargu-uzteak eta izendapenak. (O)
Proposamenak onartzen dira.
7. Galderak eta eskaerak.

(O) Onarpen puntua.